



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2008-12-05**

VIURTEA 1.577 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Eskualdeko idazle eta musikarien lanak Durangoko Azokan, gaurtik

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Guztira lau disko eta hamar liburu argitaratu dituzte eskualdeko artistek

**HITZA** 'Hitzalean' eta '1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean' aurkeztuko ditu Durangon 3



Ezker-eskuin, Iurre Peñagarikano zinegotzia, Jokin Bildarratz alkatea eta Aitor Sorreluz. E. EZEIZA

## «Baikorki» baloratu dute World Kafea

**TOLOSA** Baketik erakundeko eta Udaleko ordezkariak pasa den azaroaren 28an eginiko ekimenaren lehen ondorioak atera dituzte 6

## Hobekuntzak Tolosa eta Alegia arteko bidegorrian

**TOLOSALDEA** Foru Aldundiak milioi bat euro inbertituko ditu berrikuntza hauetan; sei hilabete beharko dituzte lanak amaitzeko 6

## Inazio Uriaren erailketa salatuz, elkarretaratzeak

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Hainbat herritarrek ETaren azken atentatua gaitzetsi dute 5



**Z Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Txotxongilo jaialdiari buruz**

Ume txiki bat daukat eta oso ondo ikusten det beraiantzat txotxongilo jaialdi hau. Guk ere aukera daukau beraiekin joateko eta hori pozgarria da. Orain bai, lehengon emaldia bat ikustera joan nahi nuen eta beste batekin topatu nintzen, egitaraua gaizki argitaratu dutelako. Dirudienez, ez da merkea ateratzen horrelako zerbait ateratzea eta beraz eskatuko nuke datorren urterako, orain beranduegi da, ondo ateratzea. milesker

**Herritar bat.****Villabonan gertatutakoa**

Joan den abenduaren leian andere batek Villabonako kale batean gu-

tunazal bat aurkitu zuen, barruan 2.930 euro zituela. Udaltzaingoa-ren bulegora ekarri zuen eta inongo saririk ez zuela nahi azaldu zuen.

Handik pixka batera, edadeko pertsona bat etorri zen gutunazalaz galdezka. Dagokion konprobaketak egin eta gero, eta ikusita dirua berea zela, dirua jabeari itzuli zitzaion.

**Villabonako Udaltzaingoa.****Euskararen Eguna ikastetxeetan**

Eskualdeko ikastetxeek ere ospatu zuten Euskararen Nazioarteko Eguna pasa den asteazkenean, hilaren 3an. Hementxe HITZARA bidali dizkiguten argazkietariko batzuk:



Goitik behera, ezker-eskuin: Tolosako Samaniego, Hirukide eta Laskorainen; Villabonako Flemingo eskolan, Tolosako Orixe, Villabonako Pedro Mari Otaño, eta Villabonako Flemingo haur hezkuntzakoak eta Jesusen Bihotza ikastolakoak. Guztietan ere ekitaldi bereziak egin zituzten Euskararen Egunaren harira: bisitak, kantaldiak, jokoak,...

**H Hilberria****INAZIOURIA MENDIZABAL**

Bat egiten dugu  
famiaren saminarekin



Zulozabal Elkarte

AZPEITIA  
2008ko  
abenduaren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

# Durangoko Azokak egun bat gutxiago izango du aurten

**Tolosalde-Leitzaldea** » 504 izenburu berri izango dira Durangoko Azokan; horietako 14 eskualdeko egileenak izango dira.

REBEKA CALVO

Iazko Durangoko Azokan umorea izan zen nagusi, ideia hori izan zen behinik behin antolatzaileek, Gerediaga Elkartekoek, azpimarratu nahi izan zuten. Aurtengoan, aldiz, urtero-urtero bertaraten diren pertsonen egin nahi izan diete keinu, baina kartelean ikusi zitezkeen txapela, betaurreko eta entzungailuak bat baino gehigoren haserraldia piztu du, «sexista» omen delako. Polemikak polemika, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokaren 43. edizioa hasier da, gaur bertan hasiko da, eta hilaren 8ra arte luzatuko da. Aurtengoan, hortaz, egun bat gutxiago izango da Azoka bisitatzeko.

Lau egunetan zehar, hortaz, 10:30etik 20:00etara, 504 izenburu berri izango dira Durangon, iaz baino 50 bat gutxiago, baina asko, hala ere. Era berean, aurtengo herrialde gonbidatua Finlandia izango da. Herrialde honetan egiten den literatura aztertuko dute, hortaz, Durangon, eta horretarako, besteak beste, Sall Jarnefelt idazle suomitarra izango da hilaren 6an. Idazleak Erdi Arotik gaurdaino suomierazko literaturak izan duen bilakaera azalduko du.

Aurtengoan Ipar Euskal Herriko ekoizleek txoko berezia izango dute bigarren goz. Bost mahaietan elkartuko dituzte Agorila, Euskalzaileen Biltzarra, Gatzuzain, Hatsa, Itas, Laguna Studios, Maiatz eta ZTK. Bestalde, aurtengo Argazkioa saria Juan Zelaiari emango dio-

te. Enpresaren mundutik euskal kulturari eginko ekarpenegatik emango diote saria Cegasa, Tuboplast eta Hidronor enpresetako presidente eragileari.

Baina jo dezagun gure eskualde- ra, badira-eta bertan izango diren eskualdeko egileen hainbat nobedade, 14 zehazki. Izan ere, liburu- dagokionez gure eskualdeko idazleek nobedade bat baino gehiago- rekin izango dira azokan.

## Eskualdekoak Durangon

Horiek horrela, Juan Kruz Igerabide bi lan aurkeztuko ditu Durangon. Bi argitaletxe desberdinekin egongo da azokan, baina bietan haurrei zuzendutako liburuak argitaratu ditu. Elkar argitaletxearekin *Amilami* lana aurkeztuko du. Liburu honek, gainera, Elena Odriozolaren barne mundua ere erakusten du, bere marrazkiekin hornitua dago eta. Ereinekin *Munia ohe aspian lo* aurkeztuko du.

Karlos Linazasorok, aldiz, poema bilduma batekin joango da Durangora, *Zein beste mundukoa* izenekoa, non «bizitzaren alde krudelenak absurdoaren bidetik» adierazi dituzten Juan Kruz Igerabide idazleak adierazitakoaren arabera. Joxean Ormazabal, bere aldetik, orain 20 bat urte argitaratutako lan bat aurkeztuko du, *Margolin*. Elkar argitaletxearekin kaleratutako lan honi «zenbait aldaketa» egin dizkio idazleak eta orain beste sail batean sartuko dute, Xaguxarren. «Txukundu

## » ESKUALDEKO AURKEZPENAK

### Liburuak

- **Askoren artean.** *Hitzalean* (HITZA, ipuin bilduma).
- **Juan Kruz Igerabide.** *Amilami* (Elkar, Haur literatura, Dona Dona saila).
- **Juan Kruz Igerabide.** *Munia ohe aspian lo* (Erein, Haur literatura, Nire Mundutxo saila).
- **Karlos Linazasoro.** *Zein beste mundukoa* (Elkar, poema bilduma).
- **Joxean Ormazabal.** *Margolin* (Elkar, Haur literatura, Xaguxar saila).
- **Xabier Olarra.** Somerset Maugham egilearen *Gutuna eta beste kontakizun batzuk* (Igela, itzulpenak).
- **Xabier Olarra.** J.R.R. Tolkien egilearen *Hobbita* (Igela, itzulpenak).
- **Mikel Errazkin eta Joxemi Saizar.** *1936ko gerrako oroitzenak Tolosaldean eta Leitzaldean* (HITZA eta 'Galtzaundi').
- **'Euskal Herria sozialista' aldizkaria.** *Estatua eta Iraultza* (Lenin).
- **'Euskal Herria sozialista' aldizkaria.** *Erreforma edo Iraultza*.

### Diskoak

- **Petti.** *Awañak*, zuzeneko diskoa. (Bonberenea Ekintzak).
- **Humus.** *Lekua* (Bonberenea Ekintzak).
- **Fiachras.** *Fiachras* (Bonberenea Ekintzak).
- **Poxpolo eta Mokolo.** *Run-Run*.

egin dut, bai hizkuntza aldetik eta baita eduki aldetik ere, ez gehiegi, baina aldaketa batzuk egin dizkiot», esan du Ormazabalak.

Itzulpenik ere bada eskualdean, Xabier Olarrarenak zehazki. Olarrak batetik Somerset Maughamen *Gutuna eta beste kontakizun batzuk* itzuli du eta bestetik, eta J.R.R. Tolkienen *Hobbita*.

Musikari dagokionez, Bonberenea Ekintzakek baditu hainbat nobedade. Batetik, Petti bakarlararen zuzeneko *Awañak* lana aurkeztuko dute. Bestalde, Humus tolosarren *Lekua* lana ere izango da Azokan. Azkenik, Fiachras talde sortu berriak izen bereko lana izango du Durangon.



Joxean Ormazabalak Margolin lana «txukundu» du. E. EZEIZA



Xabier Olarrak bi itzulpen aurkeztuko ditu Durangon. GARI GARAIALDE



Karlos Linazasororen eta Juan Kruz Igerabideren artxiboko irudia. E. EZEIZA

## HITZA ere Durangoko Azokan izango da

### Hedabideak

Bigarren goz izango da HITZA Durangoko Azokan; Barrenkaleko 6. zenbakian egongo da, zehazki.

R. CALVO

HITZA egunakariak Durangoko Azokan izango dira berriz ere. Lehenengoz pasa den urteko edizioan izan ziren bertan eta aurten, esperientzia berriz ere errepikatzea erabaki dute.

Izan ere, HITZA argitaratzen den zazpi eskualdeetan, eguneroko egunkariak gain, beste hainbat produktu ere kaleratzen dira eta horiek izango dira Durangoko Azokan eskuragai izango direnak: mahai egutegiak, Gabon kantu liburuxkak...

HITZAREN standean egongo diren produktuen artean *Hitzalean* liburua dago. Liburu honetan zazpi egunkarietako bakoitzak bere eskualdeko bost idazleren narrazioa bana bildu du eta guztien artean osatu da liburua. Guztira, 35 na-

rrazio jasoko ditu liburuak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN eskutik Karlos Linazasoro, Arantxa Iturbe, Mikel Olano, Juan Kruz Igerabide eta Joxemi Iturralde idazleen kontakizun bana irakurri ahal izango dira.

### '1936ko gerrako oroitzenak Tolosaldean eta Leitzaldean'

Bestalde, aurkeztu berri den *1936ko gerrako oroitzenak Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua ere izango da Azokan. Mikel Errazkin eta Joxemi Saizarrek eginda-

ko liburua TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta *Galtzaundi* ekarlanean atera duten lana da.

Bertan, 1936-1939ko Espainiako Gerra Zibilak gure eskualdean eragin zituen ondorioak jasotzen ditu modu sakonean: gertaera historikoak, altxamendua, erresistentzia, enfrontamendua, fusilazteak, kartzelaratzeak, zigortuak, desjabetzeak, errepresioa, emakumearen presentzia, erbesteak, euskarra eta euskal idazleak, gosea, beldurra... Datu hauek Aranzadi-

ko Errazkinek bildu ditu. Saizarrek, berri, «datu horien atzetik daudenak» azaldu ditu, elkarriketak eginez.

Urtero HITZA egunkarietako lantzen duten *Gabon kanta liburuxka* ere izango da Durangoko Azokan.

Euskararen normalizazioaren bidean HITZEK egiten duten lan garrantzitsuan euskal liburuaren eta diskoen azokan ere present egon nahi izan du. Euskalzaile guztientzat ezinbesteko hitzordua egutegian.

# Euskal Labeleko txuletekin hasiko da Txuletaren Festa, gaur

**Tolosa** » Gaurtik astelehena bitarte jaki bikainak dastatzeko aukera izango da; zesta-punta ere izango da, besteak beste.

## ERREDAKZIOA

Txuleta omentzeko garaia iritsi da beste behin ere Tolosara eta horretarako Tolosa Gourmet gastronomia ekimenak hainbat jarduerara antolatu ditu datozen egunetarako. Izan ere, aurtengoan Txuletaren Festa gaur bertan hasiko da eta datorren astelehena arte, hilak 8, luzatuko da. Egun hauetan guztietan zehar, egiteko, eta batez ere, dastatzeko, asko izango da herriko hainbat puntutan.

Urteroko moduan protagonismo nagusia herriko lau erretegi ezagunenetako sukaldariak izango dute: Casa Julianeko Matias Gorrotxategik, Casa Nicolaseko Pedro Ruizek, Burtuntziko Juanjo Pascualek eta Orueko Javier Hualdek. Aipatu adituek Zerkausion

gaur eta bihar banatuko diren bazkarietako txuletak erreko dituzte, eta baita bihar, larunbatean eta igandeetan banatuko diren afarietakoak ere. Bazkari zein afariak 40 euro balio dute eta Zerkausion gain herriko sei jatetxe eta sagardotegiaren ere izango da menua dastatzeko aukera. Jatetxeak Astelena, Botarri, Beti Alai eta Bidebide dira, eta sagardotegiak, aldiz, Usabal eta Uzturre. Erreserbak egiteko jate-txe eta sagardotegietara zuzenean dietu behar da.

## Menu borobila

Carnicas Goyaren txuletak izango dira menuko izarrak, nahiz eta jaki bikainak izango dituen lagun: Carrasco Guijuelo urdaiazpikoa, Tuterako kukuluak, Pedro Luis kontserbategiko Nafarroako zainzuriak, Antton Arroniz erretegiko piperrak, Martin Txiki Baserriko gazta eta postre bezala Casa Ezeizako zigarro zein teilak eta Gorrotxategiko xaxu ezagunak. Edateko Viñas Laguardia upategiko Ecania ardo ondua eskainiko dute.



laz ere afari zein bazkari asko banatu ziren Zerkausion eta jatetxe zein sagardotegi desberdinetan. E.EZBIZA

## » EGITARUA

### Abenduak 5

■ **13:00.** Tolosako lau erretegiak jatorri desberdineko behi-okela prestatuko dute dastatzeko egiteko. Casa Nicolas Erretegian izango da.

■ **20:00-22:00.** Zerkausia jatetxe handi bilakatuko dute lau erretegi-tako arduradunek afarietarako txuletak egingo dituztelarik bertan.

### Abenduak 6

■ **13:30-15:00.** Zerkausia jatetxe handi bilakatuko dute lau erretegi-tako arduradunek bazkarietarako txuletak egingo dituztelarik.

■ **16:30.** Beotibar pilotalekuan II. Txuleta Erronka: Titin-Zubieta Bengoetxea VI - Belokiren kontra.

Irabazleek txuleta zinta bat eskuratuko dute.

■ **20:00-22:00.** Zerkausia jatetxe handi bilakatuko dute lau erretegi-tako arduradunek afarietarako txuletak egingo dituztelarik bertan.

### Abenduak 7

■ **13:30-15:00.** Zerkausia jatetxe handi bilakatuko dute lau erretegi-tako arduradunek bazkarietarako txuletak egingo dituztelarik bertan.

■ **17:00.** Beotibar Frontoian Jai-Alive klubak antolatutako Zesta-Punta lehiaketaren barruan klubaren jokalariek amerikar kiniela egingo dute.

■ **18:00.** Jai-Aliveko jokalariei on-

netariko lau aurrez aurre jarriko dira Beotibarren: Egiguren II-Hernandez, Bereikua-Jon Arriagaren aurka.

■ **19:00.** Euskal Okelako txahal erreka prestatu eta dastatuko da Triangulon. Txahalaren 1.200 pintxo inguru banatuko dira.

### Abenduak 8

■ **11:00.** Sortzez Garbiaren eguna dela eta Andre Maria parrokiako Musika Kaperak musika obra ospetsuak interpretatuko ditu.

■ **13:30-15:00.** Zerkausia jatetxe handi bilakatuko dute lau erretegi-tako arduradunek bazkarietarako txuletak egingo dituztelarik bertan.



izan zaitez  
16. korrika  
laguntzailea!

12 euroren truke Korrika laguntzailea izango zara eta txartelari esker abantailak lortu ahal izango dituzu

# Durangoko azokan

16. korrika æk  
[www.korrika.org](http://www.korrika.org)

**LALA**  
ZAPATA  
DENDA

- Emakume, gizonetako eta umeentzako zapatak
- Bitxiak, poltsak, gerrikoak, diru-zorroak...
- Aukera handiak prezio merkean

Gernikako arbola, 3 behea • Tolosa  
Tel.: 943 65 34 14 • 636 85 62 27 • 661 22 08 70

KICK BOXING

oartzun,  
ABENDUAK 6, 22:00an

**EUSKAL HERRIA  
VS  
ESPAINA**

need sport

hitza berria GARA





## Inazio Uriaren hilketak salatu dute

**TOLOSA** • Tolosako Udalak deituta, Udal Gobernuak kideek eta hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten atzo udaletxeko arkupeetan ETAK asteazkenean hildako Inazio Uriaren heriotza salatzen. Uria 70 urteko azpeitiarra Altuna y Uria enpresako administrazio kontseiluko lehendakaria zen. Leitzan ere egin zuten elkarretaratzea, besteak beste. **E. EZEIZA**



## Pello askatzeko eskatu dute berriz

**TOLOSA** • Lizardi Elkarteko kideek elkarteko Pello Odriozola presoaren askatasuna eskatzeko hilabeteroko aurreneko ostegunetan egin ohi duten moduan elkarretaratzea egin zuten atzokoan Tolosako Plaza Zaharrean. Pello Odriozolak bere kondena bete ostean oraindik ere preso jarraitzen duela salatzen dute horrela. **E. EZEIZA**

## Kontzertu berezia Sortzez Garbia dela-eta

### ERREDAKZIOA

Tolosako Udal Txistulari Bandak kontzertu berezia antolatu du astelehenerako Sortzez Garbiaren eguna dela-eta. Hitzordua Udaletxeko arkupeetan izango da, meza nagusiaren ondotik.

Bakarleri bezala Luis Orduña ariko da, bonbardinoa jotzen due-

na, hain zuzen. Laguntzaile bezala Xabier Zelaia eta Iñigo Goia tronpeta-jotzaileak izango ditu Orduña. Zuzendari lanak Iñaki Letamendia Loinazek egingo ditu.

Txistulari Bandak *Eibar*, Ansoñaren *Beti nigan gertu*, *Eperra* eta Leteren *Xalbadorren heriotza* eskainiko ditu, besteren artean.

## Hitzaldiak Alkoholiko Anonimoen eskutik

### ERREDAKZIOA

Tolosako Alkoholiko Anonimoetako Urdiña taldeak 40 urte bete ditu aurten eta hori dela-eta bi hitzaldi antolatu dituzte. Hitzaldietan medikuntzaren ikuspuntutik alkoholismoa zer den azalduko dute. Lehen hitzordua hilaren 10ean izango da 20:00etan Tolosa-

ko Kultur Etxean. *Alkoholismoaren eragina giza-gorputzean* izenpean hainbat argibide emango ditu Tolosako Asuncion Klinikako barne-medikuntzako zerbitzuak. Hilaren 11n *Alkohola, adimena deuseztatzen duen droga* hitzaldia eskainiko du Lourdes del Campo sendagile psikiatrikoak.

## Laburrak

### Ekuador hobeto ezagutzeko aukera

**LARRAUL** • Larraulgo Kultur Astearen baitan Ekuadorreko asteburua antolatu dute. Bihar eta etzi hortaz, Ekuador hobeto ezagutzeko parada izango da herrian. Biharkoan Ekuadorreko Andeatoko artasau erakusketak eta *Latitud 0* eta *Que tan lejos* ikus-entzunezko lanak ikusteko aukera izango da. Iluntzean ekuatoriar afaria eta dantzak ere izango dira. Igandean, aldiz, dantzak izango dira arratsaldean eta baita diapositiba emanaldia eta kolokioa ere.

### Pello Ramirezen kontzertua, gaur

**TOLOSA** • Gaur ostirala 22:30etik aurrera txeloa eta akordeoia jotzen dituen Pello Ramirez musikari ordiziarren emanaldia ikusteko aukera izango da Bonberenean. Ramirezek Juanxto Zeberio pianista tolosarraren eta txeloa jotzen duten Maider Zapiainen eta Juan Joxe Eraskinen laguntza izango du. Martxoan kaleratutako *Haize Oihalak* lana eskainiko du.

**Erekte**  
MULTIKULTURALA  
Euskararen eguna  
(2. urtea)

<p><b>Abenduak 1, ostirala</b> Hizari-ostialdia</p> <p>19:00-20:00: Dena Ingalatza eta berotzeko sarritan, Hilarak, Xabier Aierri</p> <p><b>RUSPE</b> O: Inmigratzaileen Euskararen Beharrezko Zuzendaria "Zergatik eta zergatik eragotzi euskarak? Zergatik da garrantzitsua hizkuntza?"</p>	<p>Alana, Kika Anonimo, Zuzendakaria eta umorista Gaitza, Iñaki</p> <p><b>Lekua:</b> Hazi Lizarategia (Erekte) Ordua: 18:30</p>	<p>Sarrera sarrera: ez da Taberna, Triangulo, katelegia, Albi, Kafelegia</p> <p><b>Ordua:</b> 20:00tik</p> <p><b>Erekteko epaia:</b> Abenduak 2, Lekua: Urture Sagardotegia</p>
<p>Alana Urture, Sagardotegia, abenduak Euskararen eguna, ezagutu eta euskararen eguna, nola abarriaman, ezagutu, Triangulo, egongo da</p>		

## PILOTA PARTIDUAK

**Abenduak 6 • Larunbata 17:00**

**Capellan - Galarza VI**  
**Chafee - Rai**

|||||

**BENGOETXEA VI - BELOKI**  
**TITIN III - ZUBIETA**

|||||

**Galarza V - Merino**  
**Diaz - Iza**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**

## euskaraz bai

**pauso bat harago**

Kontseiluaren 10. urteurrena

\* abenduak 13 \* BEC \* 18:00

Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea:

[nierebanoa.com](http://nierebanoa.com) webgunean

902 82 02 40 telefonon

laguntzailea

**hitza**

KONTSEILUA

# Oro har, baikorki baloratu dute parte-hartzaileek World Kafea

**Tolosa** » Azaroaren 28an gauzatu zen ekimenaren lehen ondorioak atera dituzte Udaleko eta Baketikeko kideek.

## ERREDAKZIOA

Joan den ostiralean, hau da, azaroaren 28an, Tolosa 2015 ekimenaren baitan, World Kafea egin zuten. Orain, ekimenaren bultzatzaile ziren Tolosako Udalak eta Baketikek honen inguruko lehen ondorioak jakitera eman dituzte.

Ostiraleko hizketaldian 102 lagunek hartu zuten parte. Hala, herenegun egindako agerraldian, lehenik eta behin, Jokin Bildarratz alkateak eskerrak eman nahi izan zizkien herritar hauei. Baita, 2006tik hona, egitasmoa martxan jarri zenetik, bilereetan parte hartu duten 300 lagunei. Bestetik, World kafearen dinamika azaldu zuten eta jasotako ekarpenak aztertu ondoren, lehen ondorioen berri eman zuten. Aipatu bezala, Udala Baketikek laguntza izan du ekintza hau dinamizatzeke garaian, eta lehen ondorioak landu dituztenak ere beraiek izan dira.

## Aurrera begirako lanildoak

Metodologiari jarraituz, jasotako ekarpenen arabera, ondorengo bidea jorratzea erabaki du Udalak. Hasteko, World Kafean jasotako ekarpenen azterketa sakona egingo dute, hauetan jasotzen diren



Zerkausian egin zuten pasa den azaroaren 28an World Kafea. E. EZEIZA

proposamenak aurrera eramateko aukerak ikertuz. Honetaz gain, Udal agendan txertatuko dituzte jasotako kezka nahiz kezak, eta hilabeteko epean, Udalak honi guztiari buruzko txostena aurkeztuko du.

Herritarren parte-hartze politikan sakontzea ere erabaki dute, eta World Kafea bezalako ekimen jarraipena ematea. Honekin, Udala herritarrengana hurbiltzea lortu nahi dute, eta aldi berean, tolosarrak administratzaia. Erabakitze prozesuak elkarbana daitezten.

Ondorioak ateratzerako garaian, kontuan izan dituzte ere Tolosako hainbat eragilek egindako protestak. Izan ere, 70 lagun inguru bildu ziren ostiralean Zerkausian, aldarrikapenak egiteko. Hala, ekimenarekin ados ez zeuden tal-

deekin komunikazio bideak ireki dituztela agertu zuten Aitor Sorreluzek, Baketikeko kideak.

Hereneguneko agerraldian gaineratu zuten ere, parte-hartzea Udaleko antolaketa modu sistematiko eta ohikoan barneratzeko lanean jarraituko dutela eta Partaidetzarako Herri Kontseilua sortu. Egitasmo honekin, parte-hartzea Udalean txertatzeko arautegi bat osatu nahi dute.

## Ateratako zenbait ideia

Hirigintzari dagokionean, Tolosan azken urteetan egin den garapeneren inguruko ikuspegia bai korra da. Bereziki baloratzen da Alde Zaharraren berreskurapena eta kaleak oinezkoentzako bihurtzeko lanak. Honekin lotuta, behin eta berriro atera zen kanpoaldeko auzeo eta erdigunearen arteko

orekaren beharra. Mugikortasun eta garraio gaiak dagokionean, garraio publikoa eta bidegorria sustatzearen alde agertu ziren. Bestetik, aparkaleku falta hizpide izan zen. Hereneguneko ekitaldian, etxebizitza izan zen kezka nagusietako bat. Sormenezko neurriak eskatu zituztelarik, alokairuaren erabilera sustatzeko mentalitate aldaketaren gisakoak. Ingurumenari dagokionez, Oria ibaiaren errehabilitazio prozesua modu baikorrean baloratu zuten, baina Tolosako hirigintza-egituran hobeto txertatzearen beharra behin eta berriro aipatu zuten.

Ekonomia ere hizketagai izan zen, eta honen baitan, enpresen eta lanpostuen gaia izan zen nagusi. Atal honetan nabarmendu zuten, Tolosak, enpresa eta komertzioaren arteko oreka bilatu behar duela.

Baita, enpleguaren sustapenak lehentasuna izan behar duela ere.

Tolosako kultur egitasmoak baikorki ikusten dituzte, oro har, World Kafeko parte-hartzaileek. Horretarako kontuan hartu zituzten azokak, ekitaldiak eta gastronomiarekin zerikusia duten jardunaldiak. Modu honetan, herriaren bizitasuna sortzen dela uste dute eta Tolosaren izena kanpoan zabaltzen dela. Bestalde, Bonberenearen ereduak gorespentak jaso zituen, eta eredu hori bultzatzeko eskaerak egin zituzten. Eragozpenen artean, adierazi zuten, kultur politikak ez lukeela hain elitista izan behar.

Hezkuntzaren arloan zentratuz, askok aipatu zuten Tolosan unibertsitate fakultate bat finkatzearen beharra.

Gazteekin lotutako gaiak, zeharka izan bazen ere, atal gehienetan izan ziren hizketagai. Hauei entzutea lehentasunezko zatitza izan zuten, eta hauek elkartu ahal izateko espazio bat izatea, beharrezkoa.

Etorkinei dagokionean, hauek egiten dituzten ekarpenak ongi ikusten dituzte. Baita kultur aniztasuna ere. Baina elkarbizitza eta integrazioa erraztuko duen integrazio plan global baten beharra aldarrikatzen dute herritarrek. Amaitzeko, World Kafearen partaidetza baloratu zuten bertaratu-takoek. Hemen, dinamika errepikatua eta zabaltzea eskatu zituztelarik. Dena den, Udalak herritarrekiko gertutasun handiagoa aholkatu zuten.

Agerraldian, azkenik, aipatu zuten, World Kafean parte hartu ez zutenek oraindik egin ditzaizketela beraien ekarpenak, [www.tolosa2015.com-en](http://www.tolosa2015.com-en).

## Hobekuntzak egingo dira Tolosa eta Alegia arteko bidegorrian

**Azpiegiturak** » Foru Aldundiak 1.104.345 euro inbertituko ditu berrikuntza hauetan; sei hilabete baino lehen gauzatuko dute.

## ERREDAKZIOA

Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorreko Sailak eskatuta, Donostia-Beasain 3. ibilbideko Tolosa-Alegia oinezko eta txirrindularientzat bidea edo bidegorria hobetzeko proiektua eskaera egitea onartu du. Obrak 1.104.345 euroko aurrekontua du, BEZa barne, eta sei hilabetean gauzatu beharko da. Harreman SL enpresak idatzitako proiektuaren arabera. Kontratazio espedienteak ere onartu du, bai eta lanak esleitzeko prozedura irekitzea ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiarekin bidez.

Aurreikusitako hobekuntzak honako hauek dira: bizikletentzako bidea lurperatzea egungo GI-2331 bidegurutzean, ibilgailu astuaren intentsitate handiko puntu hori saihesteko. Hormigoi armatuzko kaxa baten bitartez lurperatuko da.

Bidegorriaren plataforma ere zabalduko da Arzabalza industriagunerako sarbidean eta 30 zentimetroko horma altxatuko dute bidearen aldameneko errekan; drainatzea ere indartuko dute. Azkenik, bidegorriaren Iberdrola-ko zentrala eta Alegia arteko zatia argiztatuko dute, Tolosa-Alegia zatitzaia argiztapena osatuz.

Bidegorriak Tolosa eta Alegia arteko 3,14 kilometro osatzen ditu eta etenik gabe jarraitzen du Ikaztegieta arte, guztira 6,17 kilometro dituen ardatza osatuz.

Trazatua oinezko eta bizikletarientzako bidea da, nahiz eta oi-

nezkoek duten lehentasuna eta bizikleten abiadura 20 km orduko mugatua dagoen. Bideak, hasieran, 4 metro zabal ditu, erreka eta errepidearen artean. Pixkanaka estutu egiten da, 3 metro bitarte, trenaren azpiko pasabidean, eta Alegiako zatia artean bat egin arte jarraitzen du trazatua, 2,5 metroko zabalarekin. Zati horren ezauzgarri nagusia, beste hobekuntzarik ezean, trenbidearen azpian kaxa sartzea izan da, pasabidea ahalbidetzeko.

Foru Aldundiak horrelako garraio bide alternatiboak sustatzen ditu inguruko herrietarako lekuak daketetarako, bai eta hori ahalbidetzen duen bidegorriaren ibilbideari balioa eman ere, jarduerak eta funtzio oso desberdinei (lanekoa, merkataritzakoa), astialdiakoa, naturakoa, etab.) lotutako oinezko eta bizikletarien erabilera ahalbidetzen duelarik.

## Tolosa eta bere inguruak ezagutzeko aukera asteburuan

**Aisia** » Tolosaldea Tour-ek txartel turistiko batzuk atera ditu, dohainik bisita gidatuak jaso ahal izateko; hilaren 6tik 9ra.

## ERREDAKZIOA

Tolosaldea Tour-ek asteburu honetarako bisita gidatuak antolatu ditu. Tolosa Gourmetek, eskualdeko turismo agentziarekin batera, bisitariak Tolosaldeko egonaldiak gozatzeko nahi dute. Horretarako, txartel turistikoak oparituak dituzte dohainik. Gainera, aipatzen da, gaurtik hilaren 9ra bitartean Txuletaren festa ospatuko dela Tolosan, eta jaialdi honekin lotuta hainbat ekitaldi izango direla.

Bisita gidatua Tolosako Alde Zaharrean barrena izango da. Txan-

goan parte hartu nahi dutenak turismo bulegotik abiatuko dira 10:30 aldera. Bestetik, Aranburu jauregia bisitatuko dute. Eskualdeko barroko estiloko eraikina, birmoldatua dago erakusketak egiteko, eta Udal Liburutegia jartzeko. Asteburu honetan gainera, Titiñari 08ren baitan, Errusiako txotxongiloiekin zuzendutako erakusketa ikusgai dago. Hau, 17:30etik eta 20:00etara dago zabalik.

Bi hauek gain, bisita gidatuak eskainiko dituzte ere, Gorrotxategi Konfiteri Museora. Interesadunentzako, 12:00etan izango dute horretarako aukera.

Azkenik, Tolosatik, Larraulgo Museo Etnografikoa bisitatzeko txangoak egiteko aukera ere izango da asteburu honetan. Hauek, 17:30etik aurrera egin ahal izango dira.



'La batalla de Argel' filmako fotograma bat. AUTOESKOLA ANTIKAPITALISTA

## 'Aljeriako Gudua' ikusteko aukera hilaren 10ean

**Ibarra** » Autoeskola Antikapitalistako kideek filma aurkeztu zuten atzo inguruko herritarrei gonbitea luzatuz.

### A. IMAZ

Zinemaren historiako pelikularik handienetakoa omen da *La batalla de Argel* edo *Aljeriako Gudua*. Veneziako Mostran maila horretan kokatu zuten 1966. urtean, Urrezko Lehoia edo filmik onenaren saria ematean.

«Artearen altxorrik preziatuenak gureak dira» esanaz, Autoeskola Antikapitalistako ibartarrek filma hau eskainiko dute Ibarra-ko Gaztearen abenduaren 10ean, asteazkenean, 21:00etan.

### «Euren erri ustelak agerian»

AAko kideek «harro» aurkeztu zuten atzo Zine Antikapitalistaren hurrengo emanaldia: «Askapen nazionala eta borroka iraultzailea».

kolonialismoa eta sistema ekonomiko faxista-kapitalista; garaipena eta askatasuna... Aljeriaz hitz egiten ari gara baina hitz hauek gure herrian ere ez dira hain arrotzak.

Aljerian frantziarren aurkako askatasun borroka 1954ean hasi zen, 1962an amaitzeko. Filma 1965. urtean sortu zuen Gillo Pontecorvo zuzendari italiarrak. Frantziar arazoak izan ziren aurkezterakoan, Italia eta Espainian bezala. AAko kideen esanetan, «argi dago hori zergatik gertatu zen: *Aljeriako Gudua* euren, etsaiaren, erri ustelak agerian uzten baititu».

Filmari dagokionez, sarreramoduan zera aipatu zuten: «Aljeriako gobernu independenteak zuzendari italiar bat nahi zuen gudan zehar han gertatua kontatzeko; Gillo Pontecorvo hautatu zuten. Aktore bezala askapen nazionalaren alde borrokan ibilitako herritarrak agertzen dira, horien buru Yacef Saadi iraultzaile aljeriarra. Gure herrian ikusi eta ikasi beharreko filma dela uste dugu».

## Zeberio II.ak lehen puntua poltsikoratu du

**Elduain** » Erremontearren Binakako Txapelketan Agirrezabala lagun zuela 40-36 irabazi zuen Patxi Zeberio-uharten.

### A. IMAZ

Patxi Zeberio-uharten Binakako Txapelketaren final-laurdenetako ligaxkan, lehen puntua lortu zuen herenegun Agirrezabala lagun zuela Inigo-Etxeberria III.a 40-36 garaitu ostean.

Tejados Aoi Torneo-ko partida Uhartean jokatu zuten.

### Zeberio II.aren erritmoan

Elduaindarra izan zen partidako erremontistatik onena: 17 tanto egin zituen eta 6 huts-egite. Hasieratik Zeberio II.a jaun eta jabe izan zen, markagailuan aginduz (1-0; 9-6; 15-10; 26-16 eta 31-19). Etxeberria III.a txikitu egin zuen baina kontuak amaiera aldean aldatu egin ziren. Atzelaria bere jokoa egiten ari zen eta Zeberio II.a partidatik kanpo geratu zen, tantoak atzean erabakitzen ziren eta. Markagailua ia berdindu zuten 37-35ean, baina Zeberio-uharten garaipena lortu zuen azkenean, behar handirik ez baitu tantoa egiteko.

## Gozo-gazi



### » Herrira begira

**Asier Arzallus**  
Saskibaloi jokalaria

**E**txen irabazitakoa kanpoan galdu, hoixe da aurtengo denboraldin pasatzen ari zaiuna deskribatzeko esaldi onena. Coruña-ko azken partidue Tarragonan kontra giñun, Ligan hirugarren postuan saikatu- zuden momentu hoitan, ta partidu bikañe jokatu ondoren irabaztea lortu giñun. Oso garrantzitsue izan zen gure taldeentzako partidu hoi ta ongi in-

dako lanan sarie jaso giñula esan ditteke.

Aste bat berandugo autobuse hartu ta Cordobara (Andaluzia) abitu giñen (12 ordu!!!). Gu bezela saikapen behikalden zeuden Cajasur de Cordoba-n kontra giñun partidue, beñogu bezela azkeneko partidue irabazita zeuden ta beraz bi taldek morala gainezka giñula aiatu giñen partidura. Berrize partidu bikañe in giñun ta 9 puntuz irabazten giñeuden 5 minutu faltan. Beño azkeneko 3 minutu negargarri ta zoritxarrekotan 16-2 partziala jaso ta partidue galdu giñun, bueno galdu edo oparritu hobe esanda, jeje.

Pertsonalki denboraldiko momentu hobenen aulatu iruitzen zait azken 3 aste hotan. Ourenseko partidun 5etik 5 hiruko sartu nitun partiduko aurreneko zatín, ta

Cordoban berriz partidun bigarren zatín 4tik 4 hirukotan.

Betidantik izan da hiruko jaurtiketa nere espezialidadea. Denboraldin zehar gora beherak eotten die, ta oain momentu gozo baten nau. Ligako aurreneko 10etan nau hiruko porzentaitan, espero dot hola settu ta Liga bukaeran ebai hor seitzea.

Herrira begira jarrita, azken astetan jenden ahotan bueltaka ibili izan denaz komentario ttiki bat in nahi nuke, pilotaz. Izane badakit Abel Barriolak oso txapelketa ona in dola berrize ta ligaxkan Irujo ta Aimarrekin berdinduta geldittu arren finaletik kanpo geldittu dela. Hemendik Abel zoriendu nahi nuke beti ikaragarriko maile ematen dolako. Finala ez jokatu arren leitzar guztintzat txapeldu ne za...



Nafarroaren Egunean, «Euskal Herriarekin zerikusia duen egunean», ikurrina zintzilikatu zuten udaletxean. ASIER IMAZ

## Nafarroaren Egunarekin batera ikurrina Leitzako udaletxean zintzilik

### ASIER IMAZ

Leitzako ezker abertzaleak udaletxean ikurrina jarri zuen Nafarroaren egunean. Hispanitatearen Egunean ere zintzilikatu zuten,

izan ere, ezker abertzalearen esanetan, «Euskal Herriko edo inposaturiko egunetan» ikurrina atarako dute udaletxeko balkoira; «lege inposatzaileen gainetik herriaren

borondatea eta nahia errespetatu behar direla gogorarazteko».

### Ikurren aurkako legea

2005. urtean, Nafarroako Gobernuak ikurren inguruko erabakia praktikan jarri zuen. Leitzan, garai horretako alkateak, «herriari ezer galdetu gabe eta bere erabakiz»; 10 urteren ondoren, ikurrina kendu zuen. Hala eta guztiz ere, egun jakinetan, zintzilik agertzen da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** 3 logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hila beteka. 635 75 02 93.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Alegia.** Gaztetxearen XXI. urte-muga: Zerbeza feria Gaztetxean 19:00ak aldera.
- **Tolosa.** Kike Amonarriz eta Xagbier Aierdiren *Euskara eta etorkin* hitzaldia 18:30ean Haur Liburutegian; ondoren Uzturre sagardotegian afaria; Ereite elkarteak antolatuta.

### Musika

- **Tolosa.** Pello Ramirez txeloa eta akordeoia, Juantxo Zeberio pianoa, Maider Zapirain txeloa eta Juan Joxe Erauskin txeloaren kontzertua Bonberenean, 22:30ean.

### Zinema

- **Tolosa.** 'Golazen' filma musikala ostiralean 18:00etan, doan. Gonbidapenak ikastetxeetan eta Leidorreko leihatilan (agortu arte).

### Kirola

- **Tolosa.** 27. Shanti Trofeoan izen-ematea Shanti Kirolak denda egin daiteke. Infantilek (1995/96), alebinek (1997/98) eta benjaminek (1999/2000) har dezakete parte.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzuzoa, 9. 943 675118.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## 'Romeo eta Julieta' era dibertigarrian taularatu

**TOLOSA** • Argentinako El Chonchon txotxongilo taldekoen txanda izan zen herenegun. Kasinoa jendez gainezka zela emanaldi atsegina eskaini zuten, Tolosari buruzko hainbat erreferentzia eginez, eta duela 10 urte izan zuten parte-hartzea gogoratu. *Juan Romeo y Julieta Maria* izan zen taularatu zuten lana, Shakespeareren lanean oinarritua. Ez zuen *Julieta eta Romeo*-ren ohiko itxura, baina oinarrian bikotearen maitasun ezinezkoaren nondik norakoak ziren ardatz, era guztiak xeblekeria eta inprobisazioez beterik. Umorea izan zen nagusi uneoro, barre algaru ugari eragin zituztelarik ikusleen artean. Gaurkoan, Gaztela eta Leon, Bulgaria eta Kataluniako taldeen txanda izango da Titirijai jaialdian. i.r.

MIKEL LABOAREN OMENEZ

Abenduaren 7an berriarekin DOAN



Jose Luis Zumetak Mikel Laboari egindako erretratu; egileak edizio honetarako utzia.



## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Leire Apeztegia Muñagorri (Tolosa).** Gaur 3 urte. Muxu bat sorgina. Etxekoan partetik.



**Urte askoan!**

**Aimar Garcia Murillo (Tolosa).** Gaur 3 urte. Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Hegoiaren partetik.

txokoa **h**

## 2 sarrera pare

zozketan!



Abenduak 6  
Larunbata  
17:00etan  
Tolosako  
Beotibarren

irabazleak:

- Javier Otxotorena (Anoeta)
- Idoia Olaetxea (Tolosa)

**Capellan - Galarza VI**  
**Chafee - Rai**  
■■■■■  
**BENGOETXEA VI - BELOKI**  
**TITIN III - ZUBIETA**  
■■■■■  
**Galarza V - Merino**  
**Diaz - Iza**

HITZAren

harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan.

## Sarrera pare

zozketan!

**BRUESA GBC**  
Vive Menorca

IGANDEA  
**ABENDUAK 7 - 12:30**  
ILLUNBE



irabazlea:

- Lurdes Oiarzabal (Ibarra)



Sarrerak HITZAko bulegoan izango dituzue.

## 2 pertsonentzako afaria

zozketan!

irabazleak:

- Onintza Garaikoetxea (Amarotz)



Tolosan **Abenduak 5, 6, 7 eta 8an** ospatuko den **Txuletaren festa**

Afaria eskuratzeko HITZA jarriko da zukein harremanetan.